
6.1. ETIOLOGIA, INTZIDENTZIA ETA PREBALENTZIA

6.1.1. ETIOLOGIA

Transexualitatearen etiologiari buruzko eztabaida etengabea da, eta hainbat jarreraren defendatzaile sutsuak daude: batzuek arrazoi biologiko edo zerebralak bilatzen dituzte, eta beste batzuen ustez fenomeno horrek gizartearen edo kulturaren arloko kausak baino ez ditu. Gaur egun gehiengoak ados dago ezin dela ezer zehatzik esan argi eta garbi, baina azkenaldiko ikerketen arabera, genero-nortasunaren adierazpen ez-konbentzionaletan jatorri biologikoa dute, antza⁶. Hala ere, dokumentu honen xedea ez da transexualitatearen izaera eta jatorria aztertzea, baizik eta osasun-sistematik zer jardun bideratu behar diren zehaztea, modu pragmatikoan, osasun-zerbitzu espezifikoak eskatzen dituzten pertsonen kudeaketari dagokionez sistemak berak duen ikuspegitik begiratuta.

6.1.2. INTZIDENTZIA ETA PREBALENTZIA

Ez dago azterlan zehatz eta formalik transexualitatearen intzidentziari eta prebalentziari buruz, eta are gutxiago, genero-portaera ez-konbentzionaletan buruz, oro har, edo ez delako horrelako azterketarik egin, edo estimazio errealistak lortzeko egin diren ahaleginek zailtasun izugarriak izaten dituztelako⁷. Badira prebalentziari buruzko hainbat azterlan, eta horien arabera, pertsona transexualen proportzioa antzekoa den arren, onartu behar dugu herrialde batetik bestera kultura-arloan dauden aldeak eraginez aldatu egingo liratekeela bai genero-nortasunen adierazpenak eta portaera-agerpenak, bai sentitutako edo hautemandako sexua –biologikoki esleitutakoarekin bat ez datorrena– populazio batean benetan zenbateraino agertzen den ere. Egia da herrialde gehienetan generoaren muga normatiboa gainditzeak zentsura morala eragiten duela egoera ulertu beharrean, baina zenbait kulturatan gertatzen da generoaren portaera ez-araukoak (esate baterako, lider espiritualen kasuan) ez direla hainbesteraino estigmatizatzen eta, zenbait kasutan, gurtu ere egiten dituztela⁸.

Transexualitateari buruzko prebalentzia-azterlanen berrikuspen sistematikoak eta meta-azterketak berriki ondorioztatu dutenez, azken 50 urteotan, transexualitatearen prebalentziari buruzko hainbat estimazio egin dira eta estimazio horiek oso desberdinak izan dira, hein batean, erabili duten metodologiarengatik, erabili duten sailkapen diagnostikoarengatik, eta azterketak egin ziren urte eta herrialdearengatik. 12 azterlanen meta-azterketan 4,6 kasuko prebalentzia ezarri zuten 100.000 biztanle bakoitzeko: emakume transexualen kasuan 6,8, eta gizon transexualen kasuan 2,6. Datuak denboraren

⁶ Saraswat et al, 2015

⁷ Institute of Medicine, 2011; Zucker y Lawrence, 2009

⁸ Besnier, 1994; Bolin, 1988; Chinas, 1995; Coleman, Colgan, y Gooren, 1992; Costa & Matzner, 2007; Jackson & Sullivan, 1999; Nanda, 1998; Taywaditep, Coleman, y Dumronggittigule, 1997

arabera aztertuta, denborak aurrera egin ahala aztertutako prebalentzia gero eta handiagoa dela esan daiteke⁹. Autoreek diotenez, azken urteotan transexualitatearen estimazio errealagoak egin diren arren, estimazio gehienek akats metodologikoak dituzte eta osasun-sistemaren ikuspegitik begiratuta egin dituzte hurbilketa-azterlanak, ez biztanleria orokorraren ikuspegitik begiratuta. Izan ere, 2-16 urtekoei dagokienez, Chrysallis Euskal Herria elkarteak dioenez elkarteko kide diren familietako adingabeak aintzat hartuz gero, transexualitate-egoeran dauden adingabeen prebalentzia-tasa handiagoa da bai EAEn, bai Nafarroan. Nafarroaren kasuan, iraganbidea jada egin duten Elkarteko adingabeekin jada gainditzen da 1/10.000 tasa.

⁹ Arcelus et al, 2015